

KRONIKA.NET



EUSKAL JAIK

Eguraldiak eutsi, eta sagardoz busti zen atzo jendea

Herritar ugari bildu da bi egunotan, Euskal Jaietako ekintzetan. Atzo ere, asko gerturatu ziren Plazara sagardo eta trikitixarekin goatzera.

2013/09/16 - Astelehena

Euri mehatxua izan arren, eutsi egin zion atzo azkenean eguraldiak eta giro ederrean joan ziren Plazan, sagardo probaketa eta Gazteen Trikitixa Txapelketa. Jende ugari gerturatu zen pintxo eder, sagardo trago eta trikitixa doinuekin goatzera. Hain zuzen, Hernaniko 12 sagardotegietako sagardoa izan zen aukeran. Trikitixa Txapelketan, berriz, Gipuzkoako 5 bikotek hartu zuten parte eta Aretxabale-tako Beñat Ganboak eta Arrasateko Leire Etxezarretak irabazi zuten (137,50 puntu). Bigarren postuan, Zestoako Alaitz Urdalleta eta Errezilgo Alaia Etxabe geratu ziren (122 puntu). Eider eta Lierni Tolosa ahizpa hernaniarrek hirugarren postua lortu zuten (115,25 puntu).

Tilosetan, pelota partiduak

Tilosetako frontoian ere herritar ugari bildu zen. Bi partidu jokatu ziren. Palaz: Goikoetxea eta Arrietak 25-22 irabazi zieten Mancicior eta Huiziri. Eskuz: Urkizu eta Lizeaga 22-16 nagusitu zitzaizkien Arrieta eta San Sebastiani. Giro ederrean joan dira Euskal Jaiak.

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005



**Axeri
bila 2013
klik hemen**



**Liburua
erosteko,
klik hemen**



Ibilbide Sarea:
Urruzuno

XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen